

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 620/2023 Erabakia, urriaren 10ekoa. Onestea energia jasangarritasunerako 2023ko ekitaldirako ekintzak bultzatzeko helburuarekin Kontseiluaren otsailaren 14ko 63/2023 Erabakiaren bidez deitutako dirulaguntza lerroaren ebazpena

Irailaren 27ko Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta 2022ko ekitaldiko deialdia. Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 14ko 63/2023 Erabakiaren bidez, dirulaguntza lerro horren 2023ko ekitaldiko deialdia onetsi zen.

Ebazpen honek bete egiten du oinarri horietan dagoena, zehazki honako hauetan jasotakoa: "7. Dirulaguntzak emateko prozedura. Dirulaguntzen balioespen irizpideak eta adjudikazioa. Dirulaguntzen zenbatekoa" eta "8. Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak".

Laguntza lerroaren bidez diruz lagundu daitezkeen jarduera motak honako hauek dira:

1. mota: eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea, kontsumoen kontrola, energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeko eta arintzeko beste plan batzuk egitea.

2. mota: monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko.

3. mota: eguzki bidezko argiteria publikoko ekipamendua

4. mota: lanparak aldatzea, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko.

5. mota: baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak, haiek guztiak energia eskari publikoari erantzuteko.

6. mota: bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoak azpiegiturenak ere, hori guztiori erabilera publikorako.

7. mota: ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletentzakoak ere. Kargatzeko puntuak erabilera publikora zuzenduta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.

8. mota: ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, 52 erakundek 62 dirulaguntza eskaera aurkeztu dituzte beste horrenbeste jardun garatzeko.

Erakunde eskatzaileen artean, hamabik bi jarduketa eskatu dituzte. Hauek dira:

- Mendibil, Antoñana, Menagarai-Beotegi, Izarra eta Berantevillako administrazio batzarrak.
- Burgelu, Donemiliaga, Moreda Araba, Eltziego, Dulantzi, Kanpezu eta Aiarako udalak. Donemiliagako Udalaren kasuan, bikoiztu egin du eskaera, eta, beraz, bietako bat ez da onartu (SENENT-2023/00061).

Eskatutako jarduketan banaketa, erakunde motaren eta kuadrillaren arabera, honako hau da:

ERAKUNDE MOTA	JARDUKETA KOPURUA
Administrazio batzarrak	29
Udalak	33
Guztira	62

KUADRILLAK	JARDUKETA KOPURUA
Aiaraldea	9
Añana	6
Gorbeialdea	11
Lautada	13
Guardia - Arabako Errioxa	13
Arabako Mendialdea	9
Gasteiz	1
Guztira	62

Ez da onartu Iruraiz-Gaunako Udalak 2023ko martxoaren 23an, 13:13an, aurkeztutako eskaera, "Lanturri eraikinean udal eraikinen autokontsumorako plaka fotovoltaikoak jartzeko proiektua" egitekoa, epe ofizialetik kanpo erregistratu zelako. Epe hori 2023ko martxoaren 22an, 23:59an, amaitu zen.

Bilarko Udalak (SENENT-2023/00027) eta Mendibilgo Administrazio Batzarrak (SENENT-2023/00005) uko egiteko aurkeztutako bi eskaerak onartu dira.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zenbait eskaeratan oinarrietan eskatutako dokumentazioa falta zela antzeman zen. Horrenbestez, erakunde eskatzaileei eskaera egin zitzaizen aipatutako dokumentazioa aurkez zezaten, eta ohartarazi zitzaizen hala jokatu ezean eskaera bertan behera uzten zutela ulertuko zela, aurretik ebazpena emanez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ezartzen duen bezala.

Artziniegako Udalari (esp.: SENENT-2023/00041) eta Melledeseko Administrazio Batzordeari (esp.: SENENT-2023/00046) jakinarazpen elektronikoko bidez eskatu zitzaizen aurkeztutako eskaera hamar egun balioduneko epean zuzentzeko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epea amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez zenez, eskaera bertan behera uzten zutela ulertu zen.

Eskaerei aurre egiteko, 250.000 euroko gehieneko zenbatekoa ezarri da; diru kopuru hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko 60205. G/456600/76290604 ("Diru-laguntzak energia efizientziarako") partidaren kontura banatuko da, jarduketa motaka, honela:

JARDUKETA MOTA	HASIERAKO KONTSIGNAZIOA
1	50.000,00 euro
2	5.000 euro
3	20.000 euro
4	15.000 euro

JARDUKETA MOTA	HASIERAKO KONTSIGNAZIOA
5	110.000 euro
6	20.000 euro
7	20.000 euro
8	10.000 euro

Balorazio mahaiak aurkeztu diren eskaerak aztertu ditu eta puntuazioa eman die zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera, proposamenek gutxieneko kalitate teknikoa dutela ziurtatzeko eta erabakitzeko zein eskaera onartuko diren eta zein baztertuko diren dagoen aurrekontua agortutakoan.

Hauek dira ezarritako balorazio irizpideak:

A) Proposatutako ekintzaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa. Proposatu den denbora programazioaren edukia, xehetasun maila, jarduketaren justifikazioa (konparazioa: lehen eta gero) eta koherentzia baloratuko dira: 40 puntu gehienez.

B) Inbertsioaren efizientzia, honela neurtuta: energiaren gutzizko aurrezpena kostuarekin lotuta: 20 puntu gehienez.

C) Udal energia planean, tokiko 2030 agendan, energia jasagarriaren ekintza planean, klimaren eta energiaren aldeko ekintza planean edo klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko toki erakundeak onetsitako beste plan batzuetan sartutako plana edo ekintza izatea: 25 puntu gehienez.

D) Erakunde onuradunak 1.000 biztanle baino gutxiago baditu: 15 puntu gehienez.

Ezetsi egingo dira gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten jarduerak.

Aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran sailkatu dira, eta laguntzak hurrenkeran horretan eman dira, jarduketa mota bakoitzari esleitutako aurrekontu zuzkidura agortu arte, hala egokituz gero. Eman beharreko dirulaguntzen zerrenda "Emandako dirulaguntzak I. eranskinean" jasota dago.

Hona hemen jardun mota bakoitzerako guztira emandako dirulaguntzak:

MOTA	EMANDAKO JARDUKETA KOPURUA	EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	EHUNEKOA
1	4	17.007,50 euro	ehuneko 6,80
2	2	5.000,00 euro	ehuneko 2,00
3	4	29.579,38 euro	ehuneko 11,83
4	6	30.000,00 euro	ehuneko 12
5	7	147.635,63 euro	ehuneko 59,05
6	1	6.000,00 euro	ehuneko 2,40
7	2	7.277,85 euro	ehuneko 2,91
8	1	7.499,64 euro	ehuneko 3,00
Guztira	27	250.000,00 euro	ehuneko 100

KUADRILLAK	ESLEITUTAKO DIRULAGUNTZEN KOPURUA
Aiaraldea	3
Añana	2
Gorbeialdea	4
Lautada	8
Guardia - Arabako Errioxa	7
Arabako Mendialdea	3
Gasteiz	0
Guztira	27

Laburbilduz, 27 jarduketa emango dira, horietatik 8 administrazio batzarrei dagozkie eta 19 udalei.

Jarduketa moten arabera emandako dirulaguntzak eskaera egin duten erakunde onuradunek adierazitako gastu aurreikuspenaren arabera esleitu dira.


Ondorioz, emandako kontsignazioa ez dator bat hasierako kontsignazioarekin. Horrenbestez, hasieran kontsignatutako jarduketa moten zenbatekoak berresleitu egin behar dira, azkenean emandako dirulaguntzen gastu aurreikuspenarekin bat etor daitezzen, honela:

MOTA	HASIERAKO KONTSIGNAZIOA	KONTSIGNAZIO BERRIA	ALDEA
1	50.000,00 euro	17.007,50 euro	- 32.291,43 euro
2	5.000,00 euro	5.000,00 euro	0,00 euro
3	20.000,00 euro	29.579,38 euro	9.579,38 euro
4	15.000,00 euro	30.000,00 euro	15.000,00 euro
5	110.000,00 euro	147.635,63 euro	37.635,63 euro
6	20.000,00 euro	6.000,00 euro	- 14.000,00 euro
7	20.000,00 euro	7.277,85 euro	- 12.410,70 euro
8	10.000,00 euro	7.499,64 euro	- 2.572,36 euro
GUZTIRA	250.000,00 euro	250.000,00 euro	0,00 euro

II. eranskinean, ukatutako dirulaguntzen zerrenda eta horietako bakoitza ukatzeko arrazoiak jasotzen dira.

Zortzi eskaera ukatu dira gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, eta hogeita hiru eskaera 2023ko ekitaldirako aurrekontu baliabideak agurtu direlako.

Aurrekoaz gain, ukatu egin da Kontrastako Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaera (SENENT-2023/00037) "Biomasa galdaren gelarako proiektua idazteko," herriko District Heating egiteko obren bigarren fasea delako. 2017ko jatorrizko proiektuak District-Heating ezartzea eta Kontrastako Kale Nagusia berrurbanizatzea jasotzen zituen. Berrurbanizazio faseak, Eusko Jaur-laritzaren LEADER programak eta Arabako Foru Aldundiaren Ekonomiaren Garapen eta Lurralde Oreka Sailaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planak diruz lagunduak, kaleak altxatzeari ekin zion oinarritzko zerbitzuak berritzeko, bai eta beroa galdara gelatik plano honetan zehaztutako kontsumo guneetara banatzeko hodiak ezartzeari ere:



Berokuntza komunitarioko sistema hori kaleetan lurperatutako hodian bidez beroa galdara gelatik zehaztuta dauden kontsumo guneetara (bizilagun partikularrak) banatzeko sare batean oinarritzen da. Oinarri arautzaileen 4.43 apartatuaren arabera, Energia berriztagarrien

aprobetxamendurako aurreikusitako instalazioak eta ekipamenduak (5. jardun mota) eta haiei lotutako proiektuak (6. jardun mota) soilik diruz lagundu ahal izango dira, kontsumo eta erabilerara publikorako badira. Horretarako, toki erakunde eskatzailearen kontsumoak bakarrik hartuko dira kontuan.”

Egia da galdara gela eta erregaia elikatze siloa Kontrastako eraikin sozialean kokatuko direla, baina argi dago proiektuaren izaerak, banaketa sarearen trazadurak eta ekipoen dimentsionamenduak District-Heating sistemara konekta litezkeen hartzaile kontsumitzaile nagusitzat hartzen dituztela herriko biztanleak. Hori dela-eta, proiektu honen balizko xede publikoa hondarrekotzat jotzen da gainerako kontsumo guneen aldean (biztanleak), eta Kontrastako Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaera ukatu behar da.

Honako eskaera hauek ere ukatu dira:

- Amurrioko Udalaren eskaera (esp.: SENENT-2023/00053), alkatetzaren dekretua epearen barruan ez aurkezteagatik.

- Moreda Arabako Udalaren bi eskaera (espedienteak: SENENT-2023/00008 eta SENENT-2023/00009), aurrekontu erabilgarritasunaren ziurtagiria ez aurkezteagatik.

- Laudioko Udalaren eskaera (SENENT-2023/00054 espedienteak), diruz laguntzeko jarduketa 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi zelako. Aurreko urtean, 2022ko deialdira aurkeztu zen, 5 farola instalatzeko jarduketa berberarekin. Horretarako, aurrekontuaren ehuneko 80ko faktura, 2022ko abenduaren 30ekoa, aurkeztu zuen.

- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarraren bi eskaera (espedienteak: SENENT-2023/00033 eta SENENT-2023/00034), epearen barruan ez aurkezteagatik eskatutako ekintza egiteko administrazio batzarraren onespenez erabakiaren egiaztagiria.

- * Pagoetako Administrazio Batzarrari, aurrekontua agortu denez, 15.807,76 euro ematen zaizkio “Pagoetako argiteria publikoa hornitzeko instalazio fotovoltaikoa” egiteko. Eskaera horren gainerako zenbatekoa (5.040,44 euro) “poltsan” geratuko da, laguntzen 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.

- ** Berantevillako Administrazio Batzarrari, 2. motari esleitutako aurrekontu zuzkidura agortu denez, 2.000,00 euro ematen zaizkio “Zentro sozialeko eta frontoiko energia murrizteko sistematarako”. Eskaera horren gainerako zenbatekoa (1.000,00 euro) “poltsan” geratuko da, 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ez onartzea Donemiliagako Udalaren eskaera, bikoiztuta dagoelako, ez eta Iruraiz-Gaunako Udalarena ere, epez kanpo aurkeztu delako.

Bigarrena. Bertan behera utzitakotzat jotzea Artziniegako Udalaren eskaera eta Melledeseko Administrazio Batzarraren eskaera.

Hirugarrena. Onartzea Bilarko Udalak (SENENT-2023/00027) eta Mendibilgo Administrazio Batzarrak (SENENT-2023/00005) aurkeztu zituzten uko egiteko bi eskaerak.

Laugarrena. Laguntza horiek ematea I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren erakundeei, kasuan kasuko ekintzak egiteko. Zenbatekoa: 250.000,00 euro. Oinarri arautzaileetako zazpigarrenean adierazten den bezala, adjudikaziodunek dirulaguntzaren baldintzak onartzen dituztela ulertuko da, baldin eta, ebazpena jakinarazi ondorengo 10 egun baldioduneko epean, dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko 60205. G/456600/76290604 partidaren kargura (“energia efizientziareko dirulaguntzak”) ematea laguntza horiek.

Seigarrena. Eskaerak ukatzea II. eranskineko erakundeei, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Zazpigarrena. Dirulaguntzaren ordainketa, 9. oinarriaren arabera, haren emakidaren helburua den jarduera gauzatu dela frogatu eta irailaren 27ko Gobernu Kontseiluaren 40/2022 Foru Dekretuaren II. eranskinean agertzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

Bat etorri oinarri horien 4.9 apartatuarekin: “Diruz lagundu daitezkeen jardunak kontratatzeke, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean den legediak xedatutakoa bete beharko da. Kontratu txikien kasuan (40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia obra kontratuen kasuan, edo 15.000 eurotik beherakoa hornidura edo zerbitzu kontratuen kasuan), toki erakunde onuradunak gutxienez bi (2) eskaintza eskatu beharko dizkie lanak egiteko gai diren enpresei, salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. Eskaintzak froga agiriarekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran aurkeztu beharko dira. Haien artean aukeratzea efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egingo dako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

Zortzigarrena. Ordainketa egiteko eskatzen diren agiriak aurkezteko eta gauzatzeko gehieneko epea 2023ko abenduaren 1a izango da.

Bederatzigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamargarrena. Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio bideari, eta aurkaratu egin ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria jardunean

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

ESP.	PUNT.	MOTA	BP	IFZ	ERAKUNDEA	JARDUKETA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
SENENT-2023/00060	92,41	4	50000372	P0105900E	DONEMILIAKO UDALA	Okiturri industrialdean VSAP argiak LEDera aldatzea	13.893,06 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00038	85,93	5	50000371	P0105800E	SAMANIEGOKO UDALA	36kw-ko autokontsumorako eguzki zentral fotovoltaikoa Samaniegon	37.750,00 euro	22.650,00 euro
SENENT-2023/00003	85,00	7	50000352	P0102200C	BURGELUKO UDALA	Ibilgailu elektrikoetarako bi karga puntu instalatzea	5.625,52 euro	3.375,31 euro
SENENT-2023/00043	80,78	5	50000364	P0104400G	NAVARIDASKO UDALA	12 kW-ko eguzki zentral fotovoltaikoa Navaridasko zentro sozialean	22.150,00 euro	13.290,00 euro
SENENT-2023/00002	80,00	8	50000352	P0102200C	BURGELUKO UDALA	Udalarentzat ibilgailu elektrikoak erostea	32.231,40 euro	7.499,64 euro
SENENT-2023/00022	75,00	5	50000365	P0104500D	OKONDOKO UDALA	Okondo Eskolaren ur bero sanitarioaren eta berokuntzaren energia iturria aldatzea	209.535,96 euro	40.000,00 euro
SENENT-2023/00058	75,00	1	50000343	P0101100F	AIARAKO UDALA	Aiarako mugikortasun jasangarriaren diagnostikoa	11.467,80 euro	6.000,00 euro
SENENT-2023/00059	73,64	5	50000343	P0101100F	AIARAKO UDALA	Energia fotovoltaikoko instalazio bat ezartzea Etxaurren Ikastolan, autokontsumorako	62.829,64 euro	37.697,78 euro
SENENT-2023/00055	70,00	5	50000380	P0107000B	ZALDUONDOKO UDALA	Biomasa galdara bat instalatzea udaletxean	22.561,07 euro	10.155,50 euro
SENENT-2023/00015	69,04	4	50000353	P0102300A	ELTZIEGOKO UDALA	Eltziegoko kiroldagian luminariak Led teknologiarara aldatzea	22.045,73 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00030	68,33	3	50000349	P0101800A	ZIGOITIKO UDALA	Gopegiko Padura kalean eguzki-farola fotovoltaikoak hornitu eta haiek instalatzea	8.685,00 euro	5.211,00 euro
SENENT-2023/00044	67,39	4	50000379	P0106900D	IEKORAKO UDALA	Kanpo argiteria publikoa LED sistemara aldatzea	39.848,25 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00018	66,00	3	50000150	P0100148F	DEREDIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiteria publikoko instalazioak berritzea	56.883,61 euro	17.815,78 euro
SENENT-2023/00045	65,54	4	50000288	P0100298I	LABRAZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Labrazan kanpo argiteria publikoa LED sistemara aldatzea	10.538,26 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00014	65,00	5	50000353	P0102300A	ELTZIEGOKO UDALA	Eltziegoko kiroldagian instalazio fotovoltaikoa handitzea	13.390,98 euro	8.034,59 euro
SENENT-2023/00052	64,00	3	50000004	P0105700I	AGURAINGO UDALA	Garbigunetik Atusara bitartean eguzki farolak jartzea oinezkoen bidean	7.961,00 euro	4.776,60 euro
SENENT-2023/00036	63,99	4	50000390	P0103500E	LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA	Lapuebla pilotalekuan LED teknologiarara aldatzea	14.874,63 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00017	62,19	4	50000342	P0101000H	ASPARRENEKO UDALA	Ohiko luminariak LEDera aldatzea udalaren lau eraikinetan	15.354,14 euro	5.000,00 euro
SENENT-2023/00020	60,33	3	50000070	P0100058G	GILLERNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki luminariak instalatzea	2.960,00 euro	1.776,00 euro
SENENT-2023/00031	60,00	5	50000297	P0100309D	PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA *	Pagoetako argiteria publikoa hornitzeko instalazio fotovoltaikoa	34.747,00 euro	15.807,76 euro
SENENT-2023/00025	55,00	6	50000003	P0100100G	DULANTZIKO UDALA	KULTURA ETXEAN dagoen gas galdararen ordez aerotermia ponpak jartzea eta plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua idaztea	12.000,00 euro	6.000,00 euro
SENENT-2023/00028	55,00	7	50000035	P0100022C	SOBRONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Kargagailu elektrikoak autokarabaten aparkalekuan	6.504,23 euro	3.902,54 euro
SENENT-2023/00004	45,00	1	50000244	P0100249B	MENDIBILGO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Antzinako eskola-etxearen eraikinean energia-auditoretza egitea	1.680,00 euro	1.428,00 euro
SENENT-2023/00042	45,00	2	50000374	P0106200I	URKABUSTAIZKO UDALA	Hotz/bero termostatoen instalazioa zoru erradiatzaileko	7.378,95 euro	3.000,00 euro
SENENT-2023/00062	45,00	2	50000125	P0100121C	BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA**	Energia murrizteko sistemak zentro sozialean eta pilotalekuan	4.001,05 euro	2.000,00 euro
SENENT-2023/00006	43,00	1	50000196	P0100195G	ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Antoñanako Administrazio Batzarrean energia aurrezteko plana	6.520,00 euro	5.542,00 euro
SENENT-2023/00056	40,00	1	50000373	P0106100A	KANPEZUKO UDALA	Kanpezuko Udalaren etxebizitza komunitarioaren energia auditoretza	4.750,00 euro	4.037,50 euro

* Pagoetako Administrazio Batzarrari, aurrekontua agortu denez, 15.807,76 euro ematen zaizkio "Pagoetako argiteria publikoa hornitzeko instalazio fotovoltaikoa" egiteko. Eskaera horren gainerako zenbatekoa (5.040,44 €) "poltsan" geratuko da, laguntzen 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.

** Berantevillako Administrazio Batzarrari, 2. motari esleitutako aurrekontu zuzkidura agortu denez, 2.000,00 euro ematen zaizkio "Gizarte zentrok eta frontoiko energia murrizteko sistemarako". Eskaera horren gainerako zenbatekoa (1.000,00 €) "poltsan" geratuko da, 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

PUNT.	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUKETA	ARRAZOIA
60,00	5	PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA *	Pagoetako argiteria publikoa hornitzeko instalazio fotovoltaikoa	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
57,67	3	ABORNIKANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki farolak Larrainarren eta Callejan	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
55,67	3	OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Ozaetako Administrazio Batzarrentzat eguzki luminariak instalatzea.	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
55,00	4	DULANTZIKO UDALA	Dulantzi ikastetxean argiak aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
50,26	4	URARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	VSAP argiak LED sistemara aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
50,00	5	ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Aerotermia sistema bat instalatzea Antoñanako Administrazio Batzarreko etxebizitzan eraikin publikorako	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
48,33	3	ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA	Langraiz Ganboan eguzki argiztapeneko elementuz hornitzea eta horiek instalatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
46,40	4	LAGRANGO UDALA	Lagrango udalerriko eraikin publikoetako barruko argiteria aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
45,92	4	BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Elizako, pilotalekuko eta zentro sozialeko lanparak aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
45,67	3	HERMUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiteria publikorako eguzki luminariak instalatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
45,53	4	LUJAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Lujaondoko Administrazio Batzarren Otuetako Zentro Sozialeko eta eskolako argiak aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
45,00	2	BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA **	Energia murrizteko sistemak zentro sozialean eta pilotalekuan	2. motari esleitutako aurrekontu zuzkidura agortzea
44,96	4	BIRGARAGOIENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Birgarako Administrazio Batzarren zentro sozialeko eta etxebizitza sozialeko barruko argiak aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
41,00	3	MOLINILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Herriko egoitza sozialean argiteria jartzea (antzinako eliza)	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
40,61	4	OIONGO UDALA	Barrualdeko argiak led sistemara aldatzea Ramiro Maeztu HLHn, Haur Hezkuntzako eraikinean.	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
40,00	5	KUARTANGOKO UDALA	Zuhatsu Kuartangoko ikastetxe/bainuetxe eraikineko enpresa eremua klimatizatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
40,00	4	GUARDIAKO UDALA	Plaza Nagusian luminariak aldatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
40,00	2	IZARRAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Balbula termostatoak instalatzea	Ez dago aurrekontu erabilgarririk
39,00	3	ARROIABEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki argiteria publikoko ekipamendua.	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
38,00	5	IZARRAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Dagoen gasolio galdararen ordez biomasa galdara jartzea	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
36,54	4	IXONAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Kanpo argiteria publikoa LEDera aldatzea	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
36,32	4	ALBEIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiteria led sistemara aldatzea	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
36,01	4	LEGUTIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiteria publikoa berritzea Saindurdi auzoa eta Kurutzalde auzoa	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
35,77	5	OTOGOIENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Ur ponpen instalazio fotovoltaikoa	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
30,48	4	BASTIDAKO UDALA	Kiroldegan sodiozko 20 farola LED sistemara aldatzea	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
30,00	6	KANPEZUKO UDALA	Arria Maeztuko udalerrian autokontsumo partekaturako instalazio fotovoltaikoaren proiektua idaztea	Ez da gutxieneko puntuaziora heltzen
—	6	KONTRASTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Biomasako galdara gelarako proiektua idaztea	Ez da diruz laguntzekoa oinarri arautzaileen arabera
—	3	AMURRIOKO UDALA	Eguzki argiteria publikoko ekipamendua.	Aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epez kanpo dago
—	5	MOREDA ARABAKO UDALA	Frontoiko estalkian zentral fotovoltaikoa instalatzea	Ez dute aurrekontu erabilgarritasunaren ziurtagiririk aurkeztu
—	7	MOREDA ARABAKO UDALA	Ibilgailu elektrikoetarako karga puntu bat instalatzea	Ez dute aurrekontu erabilgarritasunaren ziurtagiririk aurkeztu
—	3	LAUDIOKO UDALA	Laudioko landa ingurunean bost eguzki farola jartzea	Diruz laguntzeko jarduera 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi zen.
—	5	MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki instalazio fotovoltaikoa HUAN	Ez eskaera epearen barruan ez aurkeztu eskatutako ekintza egiteko Administrazio Batzarrak hartu zuen onespenerabakiaren ziurtagiria.
—	6	MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	HUAN eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektua	Ez eskaera epearen barruan ez aurkeztu eskatutako ekintza egiteko Administrazio Batzarrak hartu zuen onespenerabakiaren ziurtagiria.

* Pagoetako Administrazio Batzarrari, aurrekontua agortu denez, 15.807,76 euro eman zaizkio "Pagoetako argiteria publikoa hornitzeko instalazio fotovoltaikoa" egiteko. Eskaera horren gainerako zenbatekoa (5.040,44 €) "poltsan" geratuko da, laguntzen 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.

** Berantevillako Administrazio Batzarrari, 2. motari esleitutako aurrekontu zuzkidura agortu denez, 2.000,00 euro ematen zaizkio "Gizarte zentroko eta frontoiko energia murrizteko sistemarako". Eskaera horren gainerako zenbatekoa (1.000,00 €) "poltsan" geratuko da, 7. oinarri arautzailean aurreikusitako ondorioetarako.